

FAMILIA ARTEAN

ALKAR HARTURIK

SAIOA 7 URRATSETAN

- 1. AURKEZPENA**
- 2. EGUNEROKO BIZITZAKO
SINBOLOAK**
- 3. BIZIPENA**
- 4. JAINKOARI ENTZUN**
- 5. ALKARRIZKETAN JARDUN**
- 6. OTOITZEAN ADIERAZO**
- 7. ETXERA EROAN...**



1. AURKEZPENA

Indibidualismoa eta aldeak handiagoak diran gizartean bizi gara. Alkartasun-egintza eredugarriarik be ikusten da. Orokorrean, sentiberak gara eta alkartasuna adierazoteko jarduerakaz bat egiten dogu, baina nekeza egiten jaku guzti hori ekintza iraunkor bihurtzea. Jainkoaren Erreinua Jesusekin heldu zan, baina sasoi baktxean ha betetea, zeure eta nire, gure familien esku dago. Fitxa honetan, “alkar harturik” Jainkoak gura dauan munduaren alde egiteko eskatuko jaku.

HASIERAKO DINAMIKA

Umeekin

(Pertsonaiak umeen artean banatu; mozorrotu eta antzezpena prestatuko dabe, helduen aurrean egiteko)

Bazan behin..., aspaldi..., inurri bat. Soloan paseatzen ebilela, euri-jasak harrapatu eban.

- *Hau da euri-jasa! Non babestuko ete naz?* —esan eban inurriak.

Perretxiko ederra ikusi eban inurriak handik hurrean eta haren kapelaren azpian babestu zan,

noiz atertuko zain, baina gero eta handiagoa zan euritea. Handik lasterrera, tximeleta hurreratu zan hara, hegoak bustita eta hegan egin ezinik. Perretxikoraino arrastaka joan eta esan eban:

- *Inurritxo, inurritxo, itzi eidazu perretxiko-azpian sartzen, mela-mela eginda nago, hotz naz eta ezin dot hegan egin.*

Inurriak erantzun eutsan:

- *Leku txikia da, baina bardin da, estu-estu egongo gara, baina on amorean.*

Tximeleta eta inurria perretxikoaren azpian babestu ziran, euria bota eta bota ari eban bitartean. Handik gitxira arratoi txiki bat heldu zan arineketan eta esan eutsen:

- *Itzi sartzen perretxikoaren azpian, mela-mela eginda nago-eta!*

Inurri eta tximeletak zera esan eutsen:

- *Tira, ia ez dago lekuri, baina, bardin da, gehiago estutuko gara zeu be sartu zaitez.*

Euri-jasa gero eta gogorragoa zan, ez eban emoten sekula atertuko ebanik be. Eta, halako batean, uso bat heldu zan bustita eta dardarka eta erregutu eutsen:

- *Mesedez, itzi perretxikoaren azpian sartzen, lumak bustita eta hegoak nekatuta dodaz-eta.*

Ez egoala lekuri esan eban arratoiak, eta apur bat estutzeko eskatu usoak, eta danak etorri ziran bat.

Eta horretan egozala, erbia heldu zan lasterka eta oihuka:

- *Ezkutatatu naizue, azeriak harrapatu egin gura nau-eta!*

Animaliek aho batez esan eban:

Erbi gaixoa, estutu gaitez bestea apur bat eta holan ezkutatu egingo dogu.

Erbia ezkutatzear batera, azeria heldu zan lasterka. Eta hasarre bizian inguruak usaintzen ebazala, esan eban:

- *Ikusi dozue erbia? Ez dago hemen ezkutatuta, ezta? Tximeletak esan eban:*

- *Zelan ezkutatuko zan, ba, hemen, lekuri ez dago-eta!*

Eta azeriak, inguruan begiratu eta alde egin eban.

Atertu eban azkenean eta eguzkia atara zan. Animalia guztiak poz-pez atara ziran perretxiko azpitik. Harrituta, zera esan eban inurriak:

- *Zelan leiteke? Perretxiko azpian ia ez egoan lekuri eta, azkenean, danok sartu gara azpian!* Harri batetik dana ikusi eban igelak, perretxikora eta animalien gana hurbildu, eta esan eutsen kro-kro eginez:

- *Lagunak, magia alkartasunean datza! Alkarri laguntzen deusagunean, dana konpontzen da.*



Helduekin

Senar-emazteak zoriontsu bizi ziran landetxe batean, hantxe bertan, arratoi batek be bere aterpea eraiki eban. Animalia honek ez eban arazorik sukaldean edo inguruetan aurkitzen ebazan gauzakaz sabela beteteko. Baina egun batean, etxekoandreak harrapatzea erabagi eta sagu-arte itzela erosi eban.

Arratoia, ikaratuta tranpa aurkitu ondoren, arineketan joan zan etxe-artera, danei ohartarazoteko: *Sagu-arte jarri dabe etxean, sagu-arte etxean!*

Kakaraka eta azterka ebilen oiloak burua altxatu eta esan eban:

- Parkatu, Arratoi jauna, ulertzen dot **egundoko arazoa dala zuretzat, baina ez nau ezertan kaltetzen, ez deust enbarazu egiten. Diru apur bat emon deikezut laguntzeko.**

Arratoia arineketan joan zan bildotsa egoan lekura eta esan eutsan:

- *Sagu-arte jarri dabe etxean, sagu-arte!*

- *Parkatu Arratoi Jauna –erantzun eban bildotsak-. Ezin dot ezer egin, bakarrik zeure alde eskatu. Egon lasai, zure alde eskatuko deusatz-eta Jainkoari nire otoitzetan.*

Bihiarengana joan zan, orduan, arratoia, eta honek haxe esan eutsan:

- Arriskuan ete nago, ba?... Ezetz uste dot. Bide batez, jakizu, Gabonetan lagundu neutsala landetxeko beste animalia bati.

Orduan, arratoia etxera bueltatu zan, arduratuta eta etsita, baserritarraren sagu-arteari aurre egiteko.

Gau haretan, egundoko zalaparta entzun zan; sagu-artean animalia bat harrapatuta geratu izan balitz lez. Baserritarraren emaztea arineketan joan zan, tranpan ze animalia egoan ikusteko. Gauaren iluntasunean, ez eban ikusi, tranpan harrapatuta egoana suge pozoitsuaren atzekaldea zana. Sugeak konturatu baino lehen kosk egin eutsan emakumeari. Baserritarrak arin eroan eban ospitalera. Emakumea egundoko sukarraz bueltatu zan etxera.

Jakinekoa danez, ez dago zopa elikagarria baino ezer hoberik norbait indarbarritzeko. Baserritarra, labana eskuan, osagai nagusiaren bila atara zan, hau da, oiloaren bila.

Emakumeak larri jarraitzen eban, adiskide eta auzotarrak bisita egitera joan ziran. Guztiei harrera ona egin eta jaten emoteko, baserritarrak bildotsa hil eban.

Emakumeak ez eban onera egin eta, azkenean, hil egin zan. Baserritarrak, orduan, behia hiltegitara saldu eban hiletaren gastuei aurre egiteko.

**Zein da kontaketa honen irakaspena?
Ze pertsonaiarekin zatoze bat?
Zergaitik? Beste norbaiten antza izatea
gurako zeunkie?**





2. EGUNEROKO BIZITZAKO SINBOLOAK

Modan dagoz koloretako lazo solidarioak; herri eta urietako kale-etan normala da lazoa daroan jentea ikustea. Jakaren papar-hegalean jarrita edo eraikin baten fatxada apainduz, zutoihala izango balitz lez, alkartasunaren sinbolo dira eta kausaren bat babesteko edo eskari sozial, politiko, etiko edo erlijiosoren bat adoretzeko balio dabe.

Helburu bakotxak bere kolorea dau. Atxikimendua, mobimentu baten defentsa edo gizatzalde batekiko senidetasuna autortzen dau.

“Tie a yellow ribbon the ole oaktree” (lotu zinta horia haritz zaharrari) abestitik dator zinta honeek erabilteko ideia. Abesti horretan oinarrituta, 1979an, Penney Laingenek zuhaitzetan lazo horiak lotzea pentsatu eban, Teheranen (Iran) preso egoan senar militarren askapena eskatzeko sinbolo lez.

Adiskide eta senideek alkartasuna erakutsi eta bat egin eben jar-duera honekin; komunikabideek horren barri emon eben eta, harrezkero, jentea lazoez baliatzen da gizarte arazoaren aurrean, jarrera erakutsi eta defendatzeko, baita gaur egun be.

3. BIZIPENA

(UME ETA HELDU)

Eta guk, zein auzirekin egiten dogu bat? Ze lazo daroagu familia lez?



GOSEA, ELIKAGAIEN
BILKETA, GIZARTE
JANTOKIAK,
NAZINOARTEKO
ALKARTASUNA



URA ETA INGURU-
MENA, EKOLOGIA,
ORDEZKATU,
BERRERABILI,
MURRIZTU,
BERRESKURATU



HARRERA DESBARDI-
NARI, ANIZTASUN
FUNTZIONALA,
MIGRAZINOAK,
FAMILIA
DESBARDINAK



ARROPA, KONTSU-
MISMOA, BIDEZKO
MERKATARITZA



ASKATASUNA KENDU-
TAKO PERTSONAK,
PARKAMENA, GIZAR-
TERATEA, BIGARREN
AUKERAK, HARRERA



OSASUNA,
GAIXOTASUNA,
ZAHARTZAROA,
BAKARDADEA

Beharbada, lazo bakarra eroango dogu familia lez; holan bada, margotu lazo zuri hau. Bat egiten dogun auziei dagokiezan koloreak erabiliko doguz eta gehiago ala gitxiago margotuko dogu, zelako indarraz egiten dogun kontuan hartuta.

4. JAINKOARI ENTZUN

Barri Ona, San Mateoren liburutik (25, 31-46)

Jesusek esan eutsen bere ikasleei: Gizonaren Semea –eta aingeru guztiak beragaz- aintzaz beterik etortzean, bere errege-aulki ospetsuan jarriko da.

Eta herri guztiak haren aurrean batuko dabez. Harek batzuk bestea-kandik banandu egingo ditu, artzainak ardiak ahuntzengandik banatzen dituan lez: ardiak bere eskumaldean ipiniko ditu, eta ahuntzak ezker aldean. Orduan, erregeak esango deutse eskumakoei: “Zatoze, nire Aitaren bedeinkatuok; hartu egizue munduaren sortzetik zuentzat prestaturik dagoan erreinua. Ze gose nintzan 🧡, eta jaten emon zeunsten; egarri 💚, eta edaten emon; arrotz 🟡, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoan 🌸, eta jantzi egin ninduzuen; gaixorik 🩸, eta bisitatu; espetxean 🖤, eta ikustera etorri zinien”.

Orduan, zintzoek erantzungo deutse: “Jauna, noiz ikusi zinduguzan gosarik, eta emon geuntsun jaten, edota egarri, eta edaten emon? Noiz ikusi zinduguzan arrotz, eta etxean hartu, edota biluzik, eta jantzi? Noiz ikusi zinduguzan gaixorik edota espetxean, eta ikustera joan?”.

Eta erregeak erantzungo deutse: “Bene-benetan dinotsuet: nire senide txikien honeetarik bati egin zeuntsena, neuri egin zeunsten”.



5. ALKARRIZKETAN JARDUN

Ebanjelioan, Jesusek egundoko garrantzia emoten deutso bestearekiko alkartasunari. Gose, egarri, arrotz danari, biluzik, gaixorik, espetxean dagoanari laguntza emotea ezin bestekoa da Jesusen jarraitzailearentzat. Izan be, egoera horreetan dogun jarrera eta jo-kaera erabagigarria da azken epaiketan. Baina ez hori bakarrik. Jesusek bat egiten dau sufritzen dagoanarekin, goseti, gaixo, etorkin edo presoarekin. Beraz, jaramonik ez egitea, aurrera egite, lagun hurkoari alkartasunik ez erakustea da eta, gainera, Jesusi berari mai-tasunik ez erakustea.

Behartasunezko egoera honeetako bakotxa koloretako lazoen bidez gogoratu doguzan gizadiaren auziekin lotu daikezu. Lazoa ipintea, konpromisoa agertzera emoteko era da. Lazo hori barrukoa izan daitela, bihotzean jarri daigula dinosku Jesusek, gure konpromisoa barrukoa eta iraunkorra izan daiten.

Kristauok jatorrietatik dogu gure auzia eta biktima izan zan Jesusena eta lurreko biktima guztiena, lotzen dituan sinboloa. Kurutzea da. Pentsatu daikeguzan lazo guztien laburpena da. Kristauok horregaitik daroagu aldean kurutzea, edo horregaitik zintzilikatzen dogu etxean edo horregaitik da buru gure alkarteen ospakizunetan.

Kurutzea gurtzea proposatzen deutsuegu.


Adoramos te Dominus! (Taize) abestuko dogu.

Bost minutuz gurtuko dogu.

Ondoren, hurreratu eta musu emongo deutsagu.

Azkenik, Frantzisko aita santuak 2019ko Bariku Santuz Erroman egin eban Kurutze Bideko otoitz honen inguruan hausnarketa egingo dogu.

Hausnarketa: Jesus Jauna, erraza da kurutzea saman eroa-tea edo apaingarri lez gure katedraletako edo etxeetako hormetan zintzilikatzea; baina ez da hain erraza gaur egungo kurutziltzatu barriak aurkitzea eta autortzea: bi-zilekurik ez daukienak; itxaropenik, lanik, au-kerarik ez daukien gazteak; egundoko oinazeak jasan ondoren, gure gizartearen bazterretako barrakoietan bizitzera behar-tutako etorkinak. Zoritxarrez, inongo se-gurtasunik ez daukien kanpamentu honeek erraustu eta suntsitu egiten dabez, baztertutako, zapal dutako eta ahaztutako milaka gizon eta emakumeren amets eta itxaropenekin batera. Gainera, zenbat haur baztertzen dan, euren jatorriagaitik, azalaren koloreagaitik edo gizarte klaseagaitik! Zenbat amak jasaten dauan seme-alabak barregarri iztearen, adin-kide eta ikaskideek dabezan aukeretatik kanpo geratzearen iraina!



6. OTOITZEAN ADIERAZO

Ez dozu eskurik

Jesus, ez dozu eskurik. Geure eskuak baino ez dozuz zuzentasuna nagusi dan mundua eraikitzeko.

Jesus, ez dozu oinik. Geure oinak baino ez dozuz askatasuna eta maitasuna martxan jarteko.

Jesus, ez dozu ezpanik. Geure ezpanak baino ez dozuz munduari behartsuen Barri Ona iragarteko.

Jesus, ez dozu bitartekorik. Geure ekintza baino ez dozu danok anai-arreba izatea lortzeko.

Jauna, geu gara zure Barri Ona, gure bizitzak egite eta hitz eraginkor badira, jenteak irakurri daiken Barri On bakarra.

Jesus, emoiguzu zure maitasun eta indarra, zure auziarekin jarraitzeko eta ahalik eta gehienei Zu ezagutzera emoteko.

7. ETXERA EROAN...

Familia lez, iraunkortasun handiagoz beteten saiatuko garan konpromisoaren koloreagaz margotuko dogu kurutzea.

Zer egingo dogun adostu eta idatzi egingo dogu.

Kurutzea hozkailuan ipiniko dogu, adostutako egintza gogoratzeko.

